



## HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

Data: 2017/10/25

Bilera zenbakia: 8

Bilera ordua eta lekua: 18:30etan udaletxean

Parte-hartzaileak: Emma, Ainhoa, Nekane, Jose Luis, Amaia, Maite, Iker, Rosario, Bixenta eta Maddi

## LANDUTAKO GAI ORDENA

### 1. AURREKONTUAK

Aurreko power point bera erabiliz, hitz egindakoa gogorarazi da gaien kokatzeko. Kontuan hartu diren puntu garrantzitsuenak:

- Ekintza irekiak kontutan hartuko dira.
- Diru laguntza jasotzeko aurrez adostutako hitzarmen bat sinatu beharko da.
- Momentu honetan elkarte aktiboak Guraso Elkarte, Arbelaitz Elkarte eta Jubilatutako Elkarte direla argi ikusten da.
- Udalekuak eta Zaintza herriaren etorkizunerako ekintza estrategiko gisa ikusten dira.
- Urkiko elkarteak herrian parte hartze aktiborik ez duenez, zer egin pentsatu behar da.

Jarraian, **Urkiko elkarteko** ordezkari den Jose Lisek hartu du hitza:

Irail inguruan juntako bilera izan zuten eta ondoren batzar orokorra. Bertan gaiari buruzko informazioa banatu zen eta Urkiko Elkarte banaketa honetatik kanpo uztea ongi ikusten zen, ekintza finko bat delako. Bestalde, hitzarmenaren harira zailtasunak ikusten dituztela dio, izan ere, ez daude elkarte moduan erregistratuta eta beraz, izaten dituzten gastuak ere ez dituzte elkarte modura ordaintzen. Beraz, begira aritu ziren elkarte modura erregistratzeak onurarik ekarriko zien ala ez ikusteko eta uste dute onura baino, zama gehiago izango dela (gastu gehiago izango lituzkete, inspektzioak...)

Beraz, hauen proposamena, udalaren diru-laguntzari uko egitea da, gaur egun duten egoera ekonomikoa ere ona dela diote eta beraz, jaiak antolatzeko dirua falta badute ekintzak egitea aurreikusten dute. Momentu konkreturen batean laguntza behar izanez gero hitz egin beharko genuke nola egin.

Bestalde, **Guraso Elkarte** orokorrean ados agertu da proposamenarekin. Aurrez, lanketa egin dute eta bertan, hitzarmenaren iraupenarekin (3 urte) ez dira ados agertu; beraien kasuan junta erdia (2 pertsona), 2 urtez behin aldatzen dute eta beraz, nahasmena sortu daitekeela uste dute. Gure proposamena honakoa da: Hitzarmena, legealdiak irauten duen bitartean sinatzea proposatzen dugu eta ondoren aldaketak emango balira eta hitzarmena ez betetzeko oztoporen bat izango balute, hitzarmena berrikusi edota hitzarmena hautsitzat joko lituzkete. Azken honekin ados agertu dira.

**Arbelaitz Elkarteak** ere onartu du proposamena. Ordezkarria den Ikerrek esan du beraien kasuan, aurreko juntak onartutako erabakiak junta berriak bere gain hartzen dituela, beraz, printzipioz ez legoke arazorik hitzarmenarekin.

Azkenik, **Bizi Nahi Elkartearen** kasuan, irail amaieran Emma eta Maddi elkartera joan ziren elkarteko kideei aurrekontuen nondik norakoak azaltzeko. Momentuan ados agertu ziren eta gaur ez dute ezer berririk gehitu.

Beraz, adostasuna agertu da aurrekontuen irizpideak eta hitzarmenean jasotakoa onartzerako orduan. Urkiko elkartera bideratzen zen dirua gainontzeko elkarteen artean banatzea aurreikusten da, hala ere, garbi izan behar dugu hau aldakorra izan daitekeela ditugun elkarteak mantentzea eta ahal dugun neurrian laguntza ematea baita helburua.

## **2.HERRI BIZITZA WHATSAPP TALDEAREN KUDEAKETA**

Azken aldian, Herri Bizitza deritzogun WhatsApp taldetik jende asko irteten ari dela sumatu dugu. Horren arrazoia egiten den erabilera okerra dela uste dugu, hau da, momentu batzuetan "bonbardeo" handia egoten da eta beraz, jendeak nazkatuta alde egiten duela uste dugu (pertsona jakin batzuek konfirmatu dute hori dela arrazoia).

Talde hori Emma-k sortu zuen (udaleko zinegotzi zela) eta helburua herrian antolatzen ziren ekintza desberdinen berri ematea zen, horretarako oso modu zuzena eta erraza zela ikusten baitzen.

Pixkanaka, udaletik ez ezik, eragile desberdinek antolatzen zituzten ekintzen berri ere ematen zen.

Momentu batzuetan ordea, bestelako mezuak ere sartzen hasi ziren: objektu galduak (argazkiekin), txistek, beste herri batzuetako deialdi eta albistek... eta momentu jakin batzuetan (jaiak, erreferendum eguna...) bonbardeoa gehiegizkoa izan zen, honek jende batek taldea uztea eragin zuelarik. Momentu batzuetan Emmak hartu izan du ardura bere gain, baina ez dugu uste hori denik modu egokiena.

Momentu honetan, hausnarketa eginez hasierako helburua berreskuratu behar dugula argi daukagu, herriko ekintzen berri ematea eta ahalik eta jende gehienari iristea. Horretarako moduak bat baino gehiago izan daitezke eta hauek aipatu dira:

1) *Lista de difusión* delakoa egitea. Modu honetara, pertsona bakar batek (udaleko telefonoa erabiliko genuke) bidali ditzake mezuak eta parte hartzaileek ez dute beraien artean hitz egiteko aukerarik izango, bakoitzari pertsonalera iritsiko baitzaio mezua eta beraz, ez du jakingo zerrenda horretan nor gehiago dagoen.

Ideia honi dagokionez nahiko drastikoa iruditu da, ardura hartzen duenarentzat pisua handiegia dela uste duelako. Gainera, filtroa berak egin beharko luke eta horrek arazoak/haserreak sortu ditzakeela uste dugu-

2) Talde berri bat sortu eta hasieratik irizpideak garbi jarri. Modu honetara, atera den jendea berriz gonbidatu dezakegu beraientzat deserosoa izan gabe, Otik hasten garela argudiatuz.

Ez da beharrezko ikusi talde berri bat sortzea.

3) Sortua daukagun taldea mantendu eta bertan abisu bat pasa, taldearen irizpideak zeintzuk diren birgogoratu:

- **Herrian aurrera eramango diren ekintzak/hitzorduak bidaliko dira.**

- **Herrikan kanpokoak badira, herriko eragile batek antolatuak izan beharko dute.**

Irizpide hauek betetzen ez dituen mezuren bat bidaltzen bada, abisu bat pasako da (udaleko telefonotik)

eta beti berdina izango da. Nahiko zaila suertatu da irizpideak jartzea, kasu hipotetiko asko egon daitezkeelako, beraz, informazioren batekin zalantzaren bat badugu bere horretan utziko dugu.

**Garrantzitsuena** interesatzen ez diren mezu horiek (zaborra) ez bidaltzea izango da.

Modu hau ikusi da egokien eta beraz, Maddi eta Maitek mezu horiek prestatzeko ardura hartu dute.

Mezu hauek prestatu dira:

### **AURKEZPEN MEZUA**

Kaixo guztioi!

Talde honen ERABILPENEAN ARO BERRI bat hasi nahi dugu. Taldearen iraupena bermatu eta bertako edukiak eraginkorrakoak izatea dugu helburu. Horretarako, HERRIKO ekimen, ekintza edota elkarteekin zerikusia duten edukiak soilik bidaltzeko eskatuko dizuegu. Bestela, talde honen helburua distortsionatzen da eta benetan garrantzia duen informazioari pisua kentzen zaio mezuen “bonbardaketaren” artean. Talde honen helburua, ahalik eta herritar gehienengana iristea da, herrian egiten diren ekimen, ekintza, hitzaldi, ibilaldi... inguruko informazioa bidaliz. Mezua guztiok ulertuko duzuelakoan agurtzen gara, Itsasondon parte-hartuz eta aberastuz jarraituko dugulakoan, orain arte bezala. Gora Itsasondo! Mila esker!

### **EDUKI DESEGOKIAK BIDALITAKOAN ERANTZUTEN MEZUA**

Gogoratzen dizuegu talde honetan HERRIKO ekimen, ekintza edota elkarteekin zerikusia duten edukiak bakarrik bidaltzea komeni dela. Modu honetara taldearen iraupena bermatu eta edukiak eraginkorrakoak egingo ditugu. Jarrai dezagun Itsasondo ekinez egiten!

### **3. 2018ko EGUTEGIAREN OSAKETA**

Elkarte guztietako ordezkariak 2018ko egutegi bana banatu zaie eta datorren bilerarako aurreikusita dituzten ekintzak zehaztuta ekarri beharko dute.

<b>ETXEKO LANAK</b>	<b>NORK</b>	<b>NOIZKO</b>
WhatsAppeko taldera bidaliko diren mezuek prestatu	Maddi eta Maite	Lehen bait lehen
2018ko egutegian elkarte bakoitzak aurreikusten dituen ekintzak zehaztu	Denok	Hurrengo bilerarako (Az. 22)
<b>HURRENGO BILERA</b>		
Hurrengo bilera <b>azaroaren 22an, arratsaldeko 19:00etan.</b>		